

## IKASLEENTZAKO COVID-19 KONTINGENTZIA-PLANA

### Etxetik atera aurretik

- Temperatura neurtu. 37°C-tik gorakoa bada, Itxaron 10 minutu eta berriro neurtu. Ez badu behera egin, etxean gelditu. Gela batean isolatu eta osasun-zentrora deitu. Une horretatik aurrera, osasun-zerbitzuetatik jasotzen diren gomendioak jarraitu beharko dira. Horrez gain, Eskolari ere egoeraren berri eman beharko zaio.
- Temperatura ez bada 37°C-tik gorakoa, muturrekoa jantzita joan beharko da Eskolara. Etxetik kanpo egotea aurreikusten den denboraren arabera, eta erabilitako muturrekoaren arabera (kirurgikoa, higienikoa edota FPP2) muturreko gehiago edo gutxiago beharko dira. Behar baino bat gehiago izatea gomendatzen da, aurreikusi gabeko egoeretarako: galtzea, apurtzea, etab.
- Muturrekoek indarrean den osasun-araudia bete beharko dute.

### BAMera sartzeko unean

Zaindu beharreko hiru puntuak honakoak izango dira: muturrekoa une oro erabiltzea, eskuak aldiro garbitzea eta metro eta erdiko tartea mantentzea besteekiko. Saihestu beharreko hiru egoerak, berriz, honakoak: leku itxiak, jende-pilaketak eta besteekiko. Horretan oinarritua, honela jokatu da Eskolan:

- Eskolan egon bitartean, muturrekoa ezinbestean erabili behar da.
- Eskolan sartzean, eskuak garbituko dira, gel hidroalkoholikoz hornitutako edozein puntutan. Ekintza hau aldiro errepikatuko da.
- Korridore, eskailera eta abarretan, beti joango gara gure eskuinetik, noranzkoa eta espazioen banaketak adierazten dituzten seinaleak errespetatuta.
- Gure joan-etorrietan, eta ikasleak, irakasleak, etab. pilatzen diren guneean (janari-/edari-banagailuak, fotokopiagailuak, idazkaritza, komunak, etab.), segurtasun-tartea zainduko da.
- Joan-etorriak ahal bezainbeste mugatuko dira.
- Pilaketak saihestu egingo dira, eta ezin izango dira elkartu 10 lagunetik gora, betiere segurtasun-tartea zainduta.

### Ikasgelan

- Egun osan zehar erabiliko da ikasgela bera, beste espazio batzuk behar dituzten ikasgaietan salbu (plastika-tailerra, laborategia, musika-gela, gimnasioak, etab.)
- Ezin izango da lekuz aldatu egunean zehar, eta ikasleek kontuan hartuko dute nortzun egon diren haien inguruan.

- Egokitutako guneak erabiliko dira soilik; ez dira erabiliko balizadun guneak.
- Materiala partekatzea saihestu egingo da (boligrafoak, arkatz edo likido zuzentzaileak, etab.). Horrela egin behar izanez gero (ezinbesteko kasu puntualen batean) berehala desinfektatuko da partekatutako materiala.
- Eraikinean jarduera akademikoa garatzeko ezinbestekoa den denboran egotea gomendatzen da. Eraikinaren barruan paseatzea saihestuko da eta orobat, ikastorduetatik kanpo egotea Eskolan.

### Instalazio berezien erabilera (komuna, jantokia)

- Ezin izango da instalazioen edukiera gainditu.
- Beteta badago, tokia izan arte itxarongo da sartu aurretik.
- Komunak aldiro higienizatuko dira. Hala ere, eskuak garbitzeko xaboiak gain, produktu desinfektatzaile bat egongo da, komuna erabili aurretik eta ostean erabiltzeko.
- Jantokian papera eta desinfektatzailea egongo da, baina ez da izango mostratxa edo zapirik. Harria soilik erabili ahal izango da tresnaren bat garbitzeko modu puntualean, baina ezin izango da harrikorik egin.
- Mikrouhin-labea erabiliz gero, garbitu egingo dira botoiak.